



EUSKAL HERRIA ABIAN, PRESOAK ETXERA

Ezker abertzale osoa bere burua birkokatzeko ahaleginean ari da. Azken urteotako ibilbidea aztertu, aurrera begiratu eta eraberritu beharreko kontu guztiak mahi gainean jarri nahi ditugu ABIAN deitu dugun ariketa kolektibo honetan. Kide eta lagun askoren ekarpenak jaso ditugu, militanteen ahotsa entzun eta horren gainean osatzen ari gara datozen urteotarako asmoak eta egitekoak.

Hasieratik bertatik argi izan dugu ahalegin honetan euskal preso politikoak bidelagun aktiboak ditugula. Haien ekarpenak bilatu ditugu txostenak osatzeko eta eztabaida prozesuan partaide izan daitezzen saiatuko gara etengabe. Erabakiak hartzeko batzarretan haien ahotsa entzun dezagun, haien jarrera eta bozka ere presente egon dadin.

Baina ABIAN ez da paperetan edo txostenetan kabitzen den ariketa. Gure jarrera politikoa indarberritzeko ahalegina ere bada, konpromiso eta engaiamendu urrats praktikoez osatu beharrezkoa. Urrats horietako bat izan nahi du martxa honek, Espainiako espetxeetara burutzen ari garena. Frantziako espetxeetara baino, Rennesehora bideratu dugu ekimena, Lorentxa Guimon egoera zinez larria dela-eta, haren askatasunaren aldeko aldarri ozena bihur dadin.

Gutziz premiazko, urgente eta beharrezkoa zaigu sakabanaketarekin amaitzea. Presoen, senideen eta lagunen eskubide urraketa larria delako. Euskal Herriak bere luze zabalean horixe erabaki du, kalean eta instituzioetan, gehiengo oso zabalez. Demokraziaren errespetu gutxienezkoa aski litzateke, beraz. Baina sakabanaketa eskubideen aurkako gerra-makina da, biolentzia helburu politikoekin erabiltzen jarraitzen duena, eskubide asko urratzen dituena. Horietako bat presoen eskubide politikoak. Izan ere, preso politikoak direlako, kolektiboak bere burua antolatzeko aukera eta bere parte hartze politikoaren gutxienezko baldintzak bermaturik edukitzeko eskubidea dauka.

Are gehiago, gaur egun Euskal Herrian ireki dugun aro politiko berri honetan, euskal preso politikoek ekarpena ezinbestekoa da gatazkaren

zikloari amaiera eman eta haren ondorioei irtenbide justu eta demokratikoa eman ahal izateko. Horrexegatik nahi dugu ABIAN prozesuan parte izan dezaten, haien ekarpena hil ala bizikoa delako. Euskal Herriaren etorkizuna libre eta demokratikoa izan dadin ezinbesteko baldintza dugu euskal preso politiko guztien etxeratzea.

Horren aldeko erabaki sendoa adierazi nahi dugu gaurko martxa honekin. Sakabanaketa amaitzeko determinazio erabatekoa. Gaixo diren presoan berehalako etxeratzea exijitzen dugu. Egun indarrean diren salbuespenezko legeak eta Kolektiboaren aurka erabiltzen diren zigor molde guztiak indargabetzea. Euskal Herriaren esku, euskal jendartearen erabakien baitan maraztuko dugu presoan etxeratze bidea. Askatasunean, demokrazian eta hautu librean oinarritutako eszenatokia osatzeko ezinbesteko bidea. ABIAN den bidea.

Ez da berez ireki, ez da berez garatuko. Estatu biek hautu argi egin dute korapilo honetan euskal herritarren ahotsa indargabetzeko. Giltzaren jabe direlako, giltza horren jabe direlakoan. Borrokatu beharreko abiapuntua dugu sakabanaketa gainditzea. Urrats zehatzetan eta apustu ausartetan gauzatu behar dugun erronka. Kolektiboa bera eragile aktiboa dugu, egunotan borrokan murgildurik dabilena gaixo larri diren kideen berehalako askatzea aldarrikatuaz.

Egunero egunero ari da kolektiboa bere alea ekartzen, xantaiari amore eman gabe eta zigor, bakartze eta eraso ugariei aurre egiten. Gure ekarpena ezin da faltatu. Haiekin bat egin, premia handiko aldarrikapen horien alde lan egin behar dugu. Eta denaren gaineratik, sakabanaketa egunero hautsi, komunikazioa ireki, euskal preso politikoaren informazioa, partaidetza beti bermatuaz.

Euskal preso politikoaren etxeratze bidea abian da. ABIAN dugu, era beran, Euskal Herriak ireki dituen aukera politikoak garatzeko eta independentzia eta sozialismoaren aldeko bidean loratzeko

ahalegin politiko berria. Akats eta neke guztien gaineratik borrokatzeko deliberoa berresten dugu gaur eta hemen. Euskal Preso Politikoaren Kolektiboarekin bat egin eta guztien etxeratzearen aldeko engaiamendua irmoa adierazten. Ez garelako inoiz libre izango haiek aske izan gabe. Eta gure Herriak pairatu duen gatazka politikoaren muina konpontzeko konpromiso bera gureganatzen dugu. Sekulan berriro euskal preso politikorik egon behar ez dadin. Amnistia deitu izan dugun askatasun egoera eta berme demokratikoak eskuratzeko.

GORA EUSKAL PRESO POLITIKOAK!!
GORAEUSKALHERRIAASKATUA!! KOLEKTIBOAREKIN BAT,
ABIAN!!